

Angularen arrantza Euskadin

2022-2023 Arrantza-denboraldia

LIZENTZIAK ON LINE



Euskadi betidanik izan da angularen -txitxardinaren- arrantza eta kontsumo gastronomikoaren sorlekua. Duela hainbat mendetatik datorkigun jardura tradizional bat da angula-arrantza, eta “anguleroak” deitu izan zaie bahe edo salabardo baten laguntzaz eta alboan farol bat zutela ibaiertzetan angulatan aritzen ziren gizonei.

Aplikatu beharreko araudia:

- Europako aingira EAEn berreskuratzeko kudeaketa-plana
- Otsailaren 18ko 41/2003 Dekretua (EHAA 42, 2003/02/27), maiatzaren 10eko 107/2005 Dekretuak (EHAA 94, 2005/05/20) eta EAEn aingira berreskuratzeko kudeaketa-planak aldatua.

ARRANTZARAKO LIZENTZIAK

- Arrantzan jardun ahal izateko, beharrezkoa da **lizentzia pertsonal eta besterenezina** edukitzea, eta horrek arro edo gune mugatu baterako bakarrik ematen du arrantzan jarduteko aukera.
- Lizentziarekin **harrapaketei buruzko koaderno** bat doa. Bertan, honako hauek jaso behar ditu titularrak: harrapakinaren pisua, arrantzarako erabilitako bahearen diametroa, orduko botaldien zenbatekoa, eta arrantzaldi bakoitzeko botaldiko herresta-distantzia; horrekin batera, baita arrantzan jardundako eguna, ordutegia eta tokia ere.
- Arrantzaleak koaderno bar eraman beharko du beti berekin, arrantzaren datuak jasotzeko, eta **eskatutako informazioa eman** beharko du gauaren amaieran.
- Lizentzia **berritzeko**, ezinbestekoa izango da aurreko urteko arrantzaren datuak jasotzeko koadernoaren entregatzea, **apirilaren 30a baino lehenago** eta behar bezala beteta. Bestela ez zaio lizentzia berrituko hurrengo sasoian.

LIZENTZIA MOTAK

Bi motatako lizentziak daude: **lehorretik** arrantzatzeko eta **itsasontzitik** arrantzatzeko; bata zein bestea arrantza sasoi bakoitzeko ematen dira eta iraunaldi berbera daukate.

ARRANTZA-APARILUAK

“Bahea” edo “salabardoa” erabil daiteke arrantzarako; edozein eratakia izan daiteke, baina gehienez 1,8 metroko diametrokoa. Eskuko aitzur bat erabili ahal da lagun bakoitzeko. **Debekaturik dago tresna mekanikorik edo bestelako arrantza-aparailurik erabiltzea.**

NEURRIA

Debekatuta dago 12 zentimetro baino gehiago duten ibai-aingirak harrapatzea.

DEBEKUAK

Harrapatutako angulak ezin daitezke **ez saldu eta ez tratuetan** erabili (6/1998 Legearen 18. artikulua).

ARRANTZA-SASOIA

Angula **2022ko azaroaren 15etik 2023ko urtarrilaren 31ra arte** harrapa daiteke.

GEHIENEO ARRANTZA

Lizentzia eta egun bakoitzeko, gehienez, **2 kg** harrapa daitezke.

DATUEN PROZESATZEA

Helburua Euskal Herriko angula-arrantzaren tradizioaren **iraupena bermatzea** da, eta baliabide horren **ustiaketa jasangarri bat** segurtatzea, espezie horren ezaugarri biologikoak kontuan edukiz.

LIZENTZIEN KOPURUA

Angula arrantzarako 2021-2022 denboraldian emandako lizentziak:

Arroa	Lehorretik	Itsasontzitik
Abra - Las Arenas	19	
Las Arenas - La Peña	94	
Artibai	16	
Bakio	3	
Deba	162	
Lea	23	
Oka	5	
Oria	159	22
Plentzia /Gorliz	168	1
Urola	17	11
TOTAL	666	34